

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

5. batzarraren AKTA.

2017ko azaroaren 23a – 17:00 h

BERTARATUAK

Juan María Aburto (Bilboko Alkatea, presidentea)
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, presidenteordea)
Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasun zinegotzia)
Xabier Otxandiano (Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Enplegu zinegotzia)
Amaia Arenal (Udalberri udal taldea)
Ainara Aretxabaleta (EAJ-PNV udal taldea)
Alba Fatuarte (EH-Bildu udal taldea)
Jone Unzueta (Bilboko udala. Euskara eta Hezkuntza zuzendaria)
Mari Jose Arrieta (Bilboko Udala. Euskara zuzendariordea)
Libe Agirre (Bizkaia irratiko kazetaria)
Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara zuzendari nagusia)
Jokin Gorozika (Labayru Fundazioa)
Aitor Elizegi (Bilbao Dendak)
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiak)
Xabier Monasterio (Zenbat gara elkartea)
Jon Simon Gartzia (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)

EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE

Nekane Alonso (Kultura zinegotzia)
Irene Díez (GOAZEN BILBAO udal taldea)
Inés Ibáñez de Maeztu (PSE-PSOE udal taldea)
Jesús Sanz Salamanca (PP udal taldea)
Genar Andrinua (Athletic Club)
Andrés Urrutia (Euskaltzaindia)

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Idoia Postigo (Bilbao Metropoli-30)
Lander Solozabal (Labayru Fundazioa)

Bileran azaldu den txostena aldeztu aurretik bidali zaie korreo elektronikoz deitutako kideei.

Bilbon euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko lan-ildoak: egindakoak eta 2018rako aurreikuspenak

Alkateak ongiatorria eman die bertaratuei eta aipatu du Irene Díez, Goazen Bilbao udal taldeko kidea, ezin izan dela bilerara etorri arazo pertsonalengatik.

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2017-04-04) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu egin da.**

2.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) BILBON.

Koldo Narbaizak azaldu du orain martxan diren planak (ESEP eta Erabilera Plana), nahiz eta aurten bertan amaituko diren, indarrean daudela oraindik, eta gaurko batzordean emango diren azalpenak eta datuak behin-behineko balantzea eta aurrerapena direla, baina ez behin betikoa. Planen epeak amaitzen direnean, behin betiko ondorioen berri emango zaie batzordekideei eta, jakina, gaur komentatuko den txostena atzo banatu zenez, horren gaineko ekarpenak eta iritziak bidaltzeko aukera egongo da datozen egunotan.

Ondoren, Mari Jose Arrietak azaldu du bilerarako prestatu den txostenean jaso den informazioa. Power Point-az baliatu da gaurko bilerarako aurreikusita dauden gai nagusien inguruko azalpena emateko. Txostenean, jakina, zabalago garatzen dira gaiak. Bertan informazio zehatza agertzen da eta Power Point-ean, berriz, horren eskema.

Bilboko ESEP planaren inguruan hauek dira ideia nagusiak:

- Jaurlaritzaren plan bat da, eta Udal bakoitzak egokitzen du bere errealitatera. Planaren helburua da udalerrietako gizartearen esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.
- Emandako txostenean Bilbori buruzko datu soziolinguistiko oinarrizko batzuk agertzen dira, hobeto ulertzeko planaren ekintzak non kokatzen diren.

- ESEPEk 3 helburu estrategiko ditu (euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura), eta 13 lan-esparru (familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, udal administrazioa, arlo sozioekonomikoa, aisia, liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak, informazio- eta komunikazio-teknologiak, eta euskararen aldeko motibazioa).
- 3 helburu estrategikoetan eta lan-esparru guztietan egiten ditu ekintzak Bilboko Udalak.
- Bigarren helburu estrategikoan (erabilera) daude daturik apalenak, eta hori izango da aurrera begirako erronkarik handiena.
- Arlo sozioekonomikoari dagokionez, *Biribilko* programa dauka udalak martxan merkataritzaren esparruan erabilera sustatzeko. Programa honen bidez euskara ikasteko ikastaroak eta bestelako hizkuntza baliabideak eskaintzen zaizkie merkatariei.

3.- EUSKARAREN ERABILERA PLANA BILBOKO UDALEAN.

Erabilera Planaren inguruan hauek izan dira ideia nagusiak:

- Legez egin beharreko plana da.
- Helburua da Udal Administrazioa (barrura zein kanpora begira) euskararen erabilera sustatzea, ahoz eta idatziz.
- 3 esparru nagusi hauen inguruan egiten da lan:
 - ✓ Zerbitzu-hizkuntza: herritar euskaldunari euskaraz egingo zaiola bermatzea, ahoz eta idatziz.
 - ✓ Lan-hizkuntza: udal langileek arian-arian euskaraz ere bete ditzaten lan eginkizunak.
 - ✓ Beste herri administrazioekin harreman-hizkuntza, ahoz eta idatziz, euskara izan dadin lan egin.
- Lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak: legez dagokion kopuruaren gainera dago Udala.
- Langileen prestakuntza: euskara ikasteko ohiko ikastaroak Prestakuntza orokorraren bidez eskaintzen ditu Udalak, baita trebakuntza ikastaroak ere, langile eta arduradunentzat.
- Langileen hizkuntza-ohiturak aldatzeko esperientzia pilotua bost ataletan: uda aurretik jarri zen martxan eta abendura arte iraungo du.
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak: Udalak finkatu zituen eta indarrean daude baina haien betetze maila ez da ona. Ekimenak bideratu behar dira irizpide hauek berrikusteko, zabalkundea eta jarraipena egiteko.

4.- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA ETA AZPIBATZORDEAK.

Aholku Batzordearen eta azpibatzaordeen jardueraren inguruan hauek izan dira ideia nagusiak:

- Hirian euskararen erabilera areagotzen lagunduko duen tresna gisa sortu da.
- 2016an abian jarri zenetik, 15 bilera egin dira Aholku Batzordearenak eta 3 azpibatzaordeenak kontuan hartuta .
- Egindako lanak, besteak beste, honako hauek izan dira: helburuak markatu, funtzionamendua zehaztu, azpibatzaordeak sortu eta euren helburuak markatu, araudia onartu, diagnostikoa adostu eta ekintza zehatzak finkatu.

5.- 2018rako LAN-ILDOEN PROPOSAMENA.

- ESEP: hurrengo epealdirako ekintzak planifikatu behar dira. Gaur egun egiten diren programekin jarraitu beharra dago eta programa berriak sortu erabilerari dagokionez ahal dauden esparruak indartzeko.
- Erabilera Plana: oraingo planaren balorazioa egin, eta plan berriaren barruan indar berezia jarri hizkuntza-irizpideak finkatzen eta langileen hizkuntza-ohiturak aldatzen jarraitzeko.
- Aurreikusita dago aztertzea zein araudi duen Udalak euskararekin lotuta. Araututa dagoena aintzat hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko helburuari begira egon daitezkeen gabeziak ezagutu nahi dira, etorkizunari begira komeni diren neurriak hartu ahal izateko.
- Herritarren motibazioa eta sentsibilizazioa lantzeko, bi ekimen aurreikusi dira: *Hirian ere ...* eta *Euskaraldia*.

Hirian ere ... Bilboko Udalaren ekimena da herritarrak animatu daitezen lehen hitza euskaraz esatera Bilbon, edozein dela tokia: kalea, denda, taberna, garraioa ... Lagunarteko giroan edo ez. Urtean zehar, momentu jakinekin lotuta egingo da ekintza hau. Herritarrei liburuxka bat banatuko diegu euskaraz jardun dezaten bultzatuz. Santo Tomas egunean abiatuko da lehena.

Euskaraldia Euskal Herri mailako ekimen orokorragoaren barruan dagoen ekintza da. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen

erakundeak Topagunearekin batera 2018ko azaroan aurrera eraman nahi duten ekintza da, herritarrak animatuz 11 egunez euskaraz bizitzera.

- Azpibatzerdeak:

- ✓ Euskaltegiak: finantzazioaren gaia HAKOBAn lantzen jarraitu eta egoera aztertu.
- ✓ Hedabideak: Udalak arreta berezia jarri hedabideekin harremanak bi hizkuntzetan izan daitezen, euskarari lehentasuna emanda. Gainera, ahal den kasuetan, Udala saiaturko da euskarazko hedabideei lehentasuna ematen.
- ✓ Euskara-elkarteak: *Mintzakuadrillak* egitasmoa martxan jarri gazteen artean euskara sustatzeko, *Familiak olgetan* programa martxan jarri ume txikien eta euren gurasoen artean erabilera eta motibazioa sustatzeko, *Biribilkoren* bidez euskara merkataritzan sustatu eta ikusgarri egin, eta *Zergatik ez?* tailerra eskaini etorkinei, motibazioa sustatzeko.

6.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.

Hezkuntza Saileko ordezkariak, Jon Simon Gartzia, 2 kontu adierazi ditu:

- Datu soziolinguistikoetan ematen den hiztunen gaineko sailkapenaren arabera nortzuk diren *la-euskaldunak* galdetu du.
- Langileen hizkuntza ohiturak aldatzeko esperientzia pilotua interesgarria iruditu zaio eta emaitzak ebaluatuko diren galdetu du.

Euskara zuzendariordeak, Mari Jose Arrietak, honakoa erantzun dio:

- *la-euskaldunak* edo *euskaldun hartzaileak* dira euskara ulertzen dutenak baina hitz egiteko maila nahikorik ez dutenak (Inkesta soziolinguistikoa).
- Hizkuntza ohiturak aldatzeko esperientziaren emaitzak aztertu egingo dira. Emaitza horren arabera ikusiko da egokia ote den 2018an beste gune batzuetara zabaltzea. Aurreikusten da maila mikroan lan egin beharko dela erabilera bultzatzeko talde txikietan.

Zenbat gara elkarteko kideak, Xabier Monasteriok, zera gaineratu du:

- *la-euskaldunek* osatzen duten hiztun-multzoaren garrantzia aipatu behar da, alde batetik, asko direlako; eta, bestetik, nahiz eta euskaraz hitz egiteko zailtasunak izan, oso jarrera ona dutelako euskararen normalizazioarekiko eta etorkizunean balantza erabileraren alde mugitu dezaketelako.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara zuzendari nagusiak, Ana de Castrok zera komentatu du:

- Bizkaiko Foru Aldundiak mikroplangintzak (ERAMLak) egiten ditu administrazioko langileekin, motibazioa eta euskararen erabilera sustatzeko. Langileen gaitasunak hiru multzotan banatzen dituzte: ulermena, idazkera eta ahozkotasuna. Langileak ulermen maila nahikoa baldin badu, lan-zirkuituetan euskararen erabilera modu naturalean eta erraz areagotu daiteke.

Alkateak adierazi du oso garrantzitsua dela langileei erraztasunak ematea hizkuntza aldaketa egitea eskatzen diogunean.

EH bildu udal taldeko ordezkariak, Alba Fatuartek, honakoak komentatu ditu:

- ESEPi dagokionez, kale-neurketaren emaitzak ere kontuan hartu beharko lirateke. Bilbori buruz egiten den diagnostikoan Soziolinguistika Klusterraren datuak eta emaitzak ere gehitzea beharrezko ikusi du.
- Kaleko erabileraren inguruko datuak kezkarriak iruditzen zaizkio.
- Erabilera Planari dagokionez, uste du Euskara Zuzendariordeak jasota dituen adierazleak azaldu behar zirela bileran. Erabilerari buruzko datuak nahiko baxuak dira.
- Aipatutako egoerari aurre egiteko baliabide gehiago behar dira, giza baliabideak eta diru baliabideak ere.
- Garrantzitsua iruditzen zaio normalizazio-prozesuan enpresa publikoak eta Administrazioarekin harremanetan dauden bestelako entitateak ere inplikatzeko. Adibide modura Udaltzaingoa aipatu da, herritarrekin duen harreman hurbilarengatik.
- Udalean joera nagusia izaten da dena gaztelaniaz sortu eta euskaratzera bidaltzea, eta horrek bete-bete egiten du Itzulpen zerbitzua.
- Bestalde, gogora ekarri du euskara hutsezko hedabideen egoera urria.
- Euskarari buruzko udal ordenantzaren alde agertu da.
- Amaitzeko, positiboki baloratu da etorkinen inplikazioa, seme-alabak D eremuan matrikulatzen dituztelako.

Esandakoari buruz, komentario hauek egin ditu **Euskara eta Hezkuntza zinegotziak**, Koldo Narbaizak:

- Kaleko erabilera datuak jeitsi egin dira Bilbon ez ezik Euskal Herri osoan ere.
- Euskarari buruzko araudia dela eta, helburua ez da udal ordenantzak egitea hutsetik hasita, baizik eta aztertzea Udalak zer daukan. Hortik aurrera, eta ikuspegi juridikoa gogoan daukagula beti, ikusi beharko da zer behar dugun.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara zuzendari nagusiak, Ana de Castrok zera gaineratu du:

- Herri administrazioek badute obligazioa erabilera planak egiteko, baina enpresa publikoen kasuan egoera ezberdina da. Haien kontseiluek hartu behar dute erabakia. Administrazio publikoak gomendioak egin ahal dizkie, baina, esan bezala, erabakiak entitate horietako kontseiluetan hartzen dira.

Udalberri udal taldeko ordezkariak, Amaia Arenalek, honako komentarioak egin ditu:

- Datu soziolinguistikoak kezkarriak iruditzen zaizkio. Bilbon biztanleriaren erdiak ez du euskaraz hitz egiten. Zentzu honetan, bereziki zaindu beharrekoak dira *ia-euskaldunak*.
- Udalaren giza baliabideak indartu egin beharko liratekeela uste du, apustu handinahia egin nahi bada.
- Azpibatzerdeetan planteatu diren lan-ildoak interesgarriak iruditzen zaizkio.
- Hedabideen kasuan uste du finantzazioa indartu beharko lukeela Udalak.
- Udal enpresetan planak bultzatu behar direla uste du, baita fundazioetan ere.

Hezkuntza Saileko ordezkariak, Jon Simon Gartziak, adierazi du Hezkuntzatik begiratuta jarrerak landu behar direla datuak hobetu nahi baditugu. Sektore jakinekin lan egitea ezinbestekoa da, bere ustez (etorkinak...). Hizkuntzaren ospea landu behar da.

Amaiera:

Alkateak eskertu die parte hartu dutenei etorri izana. Bestalde, **Euskara eta Hezkuntza zinegotziak**, Koldo Narbaizak, denak gonbidatu ditu datorren abenduaren 1ean, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, egingo diren ekimenetara.

Aholku Batzordearen funtzionamendu araudia, behin betikoa, Bizkaiko Boletinean argitaratuko da epe laburrean.

Bilbon, 2017ko azaroaren 23an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA

Mari Jose Arrieta